



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Egon, beraz, zuhur, ez dakizue-eta, ez eguna, ez ordua”

2020ko azaroaren 8
Urteko 32. igandea (A)

Mateo 25, 1-13

Aldi haretan, Jesusek parabola hau esan eutsen ikasleei: «Zeruetako erreinuagaz, euren kriseiluak eskuetan hartu eta senar ezkonbarriari bidera urten eutsoen hamar neskatilakin lez jazoten da. Neskatiletako bost zentzumbakoak ziran eta bost zentzundunak. Kriseiluak hartzean, zentzumbakoek ez eben oriorik hartu; zentzundunek, ostera, kriseiluekin batera orioa ere hartu eben ontzietan. Senarrak luzatzen ebanez, loguratu egin ziran danak eta loak hartu ebazan.

Gauerdian oihu bat entzun zan: "Badator senargaia; urten egiozue bidera!" Jagi ziran neskatila guztiak, eta euren kriseiluak prestau ebezan. Orduan, zentzumbakoek esan eutseen zentzundunei: "Emoiguzue orio apur bat, kriseiluak amatetan joakuz-eta". Zentzundunek erantzun eutseen: "Ea ez dogun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe dozue, badaezpada, dendara joan eta erosi".

Baina, eroatera joan zirala, senarra heldu zan, eta prest ziranak ezteguetara sartu ziran haregaz. Eta atea itxi egin zan.

Heldu ziran, azkenik, beste neskatilak ere eta dei egin eben: Jauna, Jauna, edegi! Baina harek erantzun eutsen: Benetan dinotsuet, ez dakit nortzuk zareen. Egon, beraz, zuhur, ez dakizue-eta, ez eguna, ez ordua».

Urten egiozue bidera!

FEDE HIGATUA PIZTU

Jose Antonio Pagola

Lehen kristau-belaunaldiak uste osoa zuen ezen Jesus, Jaun berpiztua, oso laster itzuliko zela bizi-bizi. Ez zen, ordea, gertatu horrelakorik. Pixkana, Jesusen ikasleek prestatu beharra izan zuten denbora luzean zain bizitzeko.

Ez da gauza zaila pentsatzea zein galdera etorriko zitzairen. Nola eutsi bizirik hasierako espirituari? Nola bizi esna Jauna iritsi bitartean? Nola elikatu fedea itzali gabe? Jesusen kontakizun batek, eztei batean gertatuaz, lagundu zien erantzuna bilatzen.

Hamar neska gazte, andregaiaren adiskideak, beren kriseiluak piztu eta senarrari ongietorri egiteko prestatu dira. Eguzkia sartzean, emaztea berekin hartuko duenean, biei lagunduko diete, senarraren etxera eramango dituen segizioan, han eztei-otordua egiteko.

Bada xehetasun bat kontalariak hasieratik nabarmendu nahi izan duena. Hamar neska gazteen artean bost «**zuhurrak**» dira eta arduratsuak; berekin hartu dute olioia, kriseilukoa gastatu ahala gehitzen joateko. Beste bostak «**zentzugabeak**» dira eta zabarrak; ez dute olio gehigarririk hartu eta kriseiluak itzaltzeko arriskuan gertatu dira.

Hain zuzen, laster konturatuko dira beren okerraz. Senarra atzeratu egin da eta ez da iritsi gauerdia arte. Ongietorria egiteko deia entzun dutenean, zuhurrek olioia gehitu dute bere kriseiluetan eta jai-aretora sartu arte lagundu diote senarrari. Zentzugabeek ezin dute egin lantuka hasi besterik: «**Itzaltzen ari zaizkigu kriseiluak!**» Olio bila joan beharrean gertatu direla, atea itxia zelarik iritsi dira eztei-otordura. Beranduegi.

Irukingile askok «**olioaren**» sinboloari ezkutuko esanahia bilatu nahi izan dio. Espiritu-berotasunaz, maitasunaz, bataioko graziaz... mintzo ote da Jesus? Agian, gauza xumeagoa da haren desira handi hura gogoratzea: «**Sua ekartzera etorri naiz lurrera, eta zer nahiago hura piztea baino?**» Ba ote da ezer gure fedea piztu dezakeenik, Jesusekin harreman bizia izatea baizik?

Ez ote da zentzugabekeria fede higatu bat gorde nahi izatea, Jesusen suaz bizi arazi gabe? Ez ote da kontraesana kristau garela uste izatea, haren egitasmoa ezagutu gabe eta haren bizierak erakartzen gaituela sentitu gabe?

Premia bizikoa dugu kalitate berri bat harekiko geure harremanetan. Geure bizitzaren erdigunetzat hura bera hartzen lagunduko digun guztia zaintzea. Indarrik ez gastatzea ebanjeliotik zabartzen edo desbideratzen gaituen ezertan. Igandero geure fedea piztea, haren hitzak hausnartuz eta bizi-jarreraz jaunartuz. Inork ezin ditu eraldatu gure elkarteak Jesusek bezala.